

---

---

# ZUREZKO ARRANTZUNTZIAK HILTZEAR

---

---

Joxerra Aizpurua

---

---

*"Euskal Herria"  
arrantzuntzia*



*Ez dugu uste izenburu honek inor harrituko duenik. Euskal Herriko arrantzaren egoera larria baino larriagoa bada ere, “Euskal Herria” izeneko arrantzuntzi batek haize berriak ekarri nahi dizkio arrantzaren alorrari. Arrantzuntzi honetan zura material berri batez ordezkatu da etorkizun itxaropentsua iragarri nahian.*

---

---

Hondarribiko sarreran dagoen *Olaziregi* untzilara jo genuen berrikuntza honi buruz gehiago jakin ahal izateko. Erramun eta Inazio dira famili untzioa honen jabeak eta badirudi untzioa honek “familiarra” izaten segituko duela; Olaziregi familiako gazteenek ere bertan lan egiten bait dute. Untziolaren barnean eskailera batzuk igoz dagoen bulegoan, Erramun aurrez aurre genuelarik, ondo-ko elkarrizketa hau izan genuen.

*Elh.: Hitz egingo al diguzu material berriari buruz?*

**Olaz.:** Materiala poliesterra da. Hobeto esanda, beira-zuntzez indartutako poliesterra. Poliester-geruza bakoitzagatik beira-zuntzeko geruza bat ipini behar da. Geruza bikoitz hauen kopurua untzia-aren luzerak mugatuko du, baina normalean untzia-aren luzera-metro bakoitzeko geruza bikoitz bat ipintzen da. 24 m-ko untzia batek adibidez, 24 geruza bikoitz dauzka. Badirudi geruza-kopuru honek lodiera handia hartu behar duela, baina 30 mm lodi besterik ez da. Gainera, geruza honen barnean zenbait nerbio sartzen da multzoa indartzeko.

*Elh.: Jadanik, urte batzuetako esperientzia baduzue poliesterreko untzia txikitetan. Baina, orain emandako urratsa ez da txantxetakoa. Zer eragin izan du zuentzat emandako urrats honek?*

**Olaz.:** Gazte-gaztetatik aitarekin lan egiten hasi ginenean, zura izan zen urte askotan erabilitako laneko materiala. Orain dela hamabi bat urte, poliesterreko untzia txikiak egiten hasi ginen. Bide honetatik abiatzeko arrazoiak, poliesterrak dauzkan propietate eta abantailetan daude. Fabrikazioan, egia esan, ez dugu aldaketa handirik egin. Zurak, eskulanez aparte, makineria asko behar izaten du berarekin lan egin ahal izateko. Poliesterrak, ez du ia makineriarik behar, baina eskulan dexente behar du: ia lan gehiena eskuzkoa dela esan daiteke.

*Elh.: Burdinazko piezak (hots, motorea, helizea, etab.) untzia-ri finkatzeko, besteak beste, soldadura eta erremateak erabili izan dira. Poliesterreko untzia honetan nola egin dituzue elkarketa horiek?*

**Olaz.:** Poliesterrean ezin da soldadura bezala ezagutzen duguna egin. Burdina



### **Erramun Olaziregi**

*goa omen du.*

poliesterrarekin lotu behar denean, poliesterrean *sartzen* da eta poliester-geruza batzuekin eutsi. Eta hori nahikoa ez bada torlojoak ere erabil daitezke. Beraz, oso teknika erraza eta sekreturik gabekoa da hau.

*Elh.: Poliesterreko untzia honen oreka-arazoak nola gainditu dituzue?*

**Olaz.:** Ez. Ez dugu arazo berezirik eduki. Esperientziak erakutsi bait digu poliesterreko untziek zein forma eduki behar duten. *Pikatuagoak* direla esan daiteke.

*Elh.: Beraz, badirudi teknologia berri honek zailtasun berezirik ez dizuela planteatu.*

**Olaz.:** Ez. Ez da hain zaila izan. Benetako zailtasuna moldeak egitean datza, baina zurezkoetan ere hauxe da zailtasunik handiena. Behin moldeak eginez gero, materiala brotxaz ezartzeko lana oso mekanikoa da. Lehen esana dut untzia hauek forma berezia dutela. Hori ere, esperientziak erakutsi digu. Poliesterreko lehen untzia egin genuenean, zurezkoen forma berdinekoa egin genuen, baina uretara bota ondoren, oso gaizki joaten zela ikusi genuen. Han eta hemen galdetuz, forma egokia aurkitu genuen eta urteak joan ahala nahikoa esperientzia geureganatu dugu alor honetan. Hala ere, berriro diot, moldeek ematen dizkigute buruhauste handienak.

*Elh.: Arrantzuntzi honen egitura dela eta, zaila omen da urperatzea... Baina, zurezkoak baino suharkortasun handia-*

**Olaz.:** Horrela gertatuko balitz (hau da, arkaitz-muturren bat jo eta zulatzea), oso zaila ikusten dut untzia urperatzea. Untziak dituen gela eta ganbarak guztiz estankoa dira eta zuloren batetik ura sartuko balitz, ez litzateke beste geletara pasatuko. Are eta gehiago, arrantzaleek materiala edukiz gero, zulo hori beraiek konpon dezakete.


Su-kontutan, egia da poliesterrak zurak baino arrisku handiagoa duela, baina ez hainbeste. Poliesterrak su hartzeko bere baitan sortu behar da sua, hau da, poliesterreko zerbait muntatzerakoan poliesterra bustia dagoela su ematen bazaio, orduan bai, dena kixkalita geratuko da. Baina baldintza hauek oso bereziak dira eta ez dira ia sekulan betetzen.

*Elh.: Arrantzuntzi honek helizeak alboan dituela ikusi dut...*

**Olaz.:** Bai eta ez. Propultsiorako helizea beste arrantzuntzien antzera atzean dauka ohizkoa bezala, baina egia da alboan bi helize dituela: bat aurrean eta beste bat atzean. Bi helize hauen zeregina manio-bratako lanak erraztea da: bai kaian bertan eta baita arrantza-manio-bratan ere. Kontutan hartu sarea zabaldua dagoenean arrantzuntziari indar izugarria eragiten zaiola eta alboko helize hauen bidez arrantzuntzia saretik aparte mantentzea lortzen dela. Egitura hau ezi-nezkoa litzateke zurezko untzitan.

*Elh.: Kolpeen aurka erresistentziarik ba al du poliesterrak?*

**Olaz.:** Alor honetan fama txarra dauka



*Zurezko untziak ez dira bukatu oraindik*

poliesterrek kalean. Arina dela, ahula dela, itsasoko haizeek erraz eramanezaketeela etab., entzuten dira. Eta egia da, noski, behar adina material sartzen ez denean. Demagun zurezko untzi batek 50 tona pisatzen dituela. Poliesterrezkoak ez luke gutxiago pisatuko, ezta gutxiagorik ere, eta azken finean 50 tona zur, 50 tona poliester edo beste substantzia bateko 50 tona, 50 tona dira eta hori ez dago mugitzerik. Beraz, nahikoa materiala sartuta "fama txar" horrek ez dauka inolako arrazoirik.

Kolpeen kontrako erresistentzia zer nolakoa den ikusteko, hemen untzian egindako frogak kontatuko dizut. Zentimetro bateko poliester-ohol bat eta hiru zentimetroko zur-ohol bat karga berdinez jo ziren. Zura txikituta geratu zen bitartean, poliester artazitu edo pitzatu besterik ez zen egin.

*Elh.: Zeintzuk dira untzien neurriak eta zein diferentzia dago zurezkoekin konparatuta, kapazitate-alorrean?*

*Olaz.: Arrantzuntzia 24,30 luze, 6,40 m*

zabal eta 3,35 m sakon da eta bolumena 208 m<sup>3</sup>-koa. Kapazitate aldetik, 27-28 m luzerako zurezko arrantzuntzi batena da. Kontutan hartu poliesterreko geruzak zurezkoak baino askoz ere meheagoak direla eta gasoilezko depositoa, makinagela etab. pasatu ondoren neberetara iristen garenean, alde bakoitzetik 40 cm irabazten dela. Beraz, arrantzuntzi txikiagoa da, baina kapazitate handiagoa du.

*Elh.: Untziaren zati desberdinak nola fabrikatu dituzue?*

*Olaz.: Lehenbizi moldeak prestatu behar izaten dira eta horixe da, hain zuzen ere, gehien kostatzen den lana. Hemendik aurrera unti guztia bat da, hau da, ez dago zati independenterik. Beraz behetik goraino unti pieza trinko bat balitz bezala kontsideratu behar da.*

*Elh.: Oso garestia al da poliesterrezko arrantzuntzi hau?*

*Olaz.: Kostu-atalean bi alderdi desberdindu beharko lirateke. Alde batetik*

untzia egiteak duen kostua eta bestetik mantenimendu-kostua.

Poliesterrezko arrantzuntzia egitea %10 edo %12 gehiago kostatzen da zurezkoa egitea baino eta %6 edo %8 merkeago burdinazkoa egitea baino. Poliester dexentez garestiagoa da zura baino. Guri 1000 pta. kiloko kostatzen zaigu gutxi gorabehera. Hor zehar ibili gara prezio hobeagoak aurkitu nahian, baina une honetan zaila da.

Mantenimenduan, aldiz, poliesterrezko eta zurezko unti baten artean ez dago konparazioa egiterik; askoz ere merkeagoa bait da poliesterrezko untiarena.

Zurezko unti gutxienez urtean behin pintatu behar da eta poliesterrezkoa hamar urtean behin. Bestalde, kaskoan egin behar izaten diren konponketak erraz baino errazago egiten dira.

Iraupena ere, poliesterrezkoena zurezkoena baino handiagoa da. Ingalaterran 37 urteko patruiluntzi bat dagoela orain etorri zait burura.

Beraz erreferentzia hau hartzen badugu, 40 urte inguruko arrantzuntzi batek bere burua nahikoa amortizatua duela esan daiteke, ezta?

*Elh.: Euskal Herrian merkaturik ikusten al duzu?*

*Olaz.: Nik ez dakit teknologia berri honetaz Euskal Herriko arrantzaleak konbentziturik dauden ala ez. Izan ere, urtetako tradizioa hutsi behar izatea kosta egiten da eta hori normala da. Jakin badakit Hondarribiako arrantzaleak teknologia honen posibilitateak konbentziturik daudela, beraiekin harreman zuzena dugulako behar bada.*

Hala ere, etorkizuna arrantzarekin lotuta dago. Beraz, merkaturik dagoen ala ez geroak erakutsiko digu.

*Elh.: Mila esker.*

### **TEKNOLOGIA BERRIARI LAGUNDU BEHAR**

*Untziola gaur egun dagoen bezala, unti txikiak eta txalupak egiteko pentsatuta dago. Zurezko unti poliesterrezkora pasatzeak ez dituzte lekuz aldatzera behartu, baina unti txikiak egiteko unti handiak egiteko emandako urrats honek leku aproposago eskatzen du. Horretaz jabetu dira olaziregitarak. Bestela "Euskal Herria" arrantzuntzia untiolatik ateratzeko pasatu behar izan dituzten gorabeherak entzutea besterik ez dago.*

*Erramunek esan zigunez, lur batzuk ba omen dauzkate untiola egokiagoa egiteko. Jakin badakite Administrazio Publikoak teknologia berriak ezartzeko laguntzak luzatzen dituela. Baina, arrantza oso beltza omen da diru-laguntzen alorrean eta beraz,*

*diru-laguntzarako ohiturarik ez dago. Ate asko jo eta joko omen dute diru-eske, espainiar estatuan poliesterrezko untiak egiten dituzten hiru untiola besterik ez omen dago eta.*

*Guk lerro hauek aprobetxatuz, lagunarteko aholku bat luzatu nahi diegu olaziregitarrei. Gaur egun industrien edo ikerketazentruen diru-laguntzak eskatu ahal izateko itxura edo irudia asko zaintzen dute, hots, titulatu zen zerradak, txostenak, proiektuak etab. egiten dituzte. Nahiz eta untiolako lana askotan artisau-lana izan, kanpora erakutsitako itxura gehixeago zainduz agian zenbait bide arrotz erraztu egingo litzateke.*